



ESKORIATZA

ZE BARRI?

URLATIK • LANDETARA



GATZAGA

23. Alea 1998ko Iraila



ESKERRAK EMANAZ GUTUNA CHIAPASETIK

- Eskoriatzarrak munduan zehar udako oporretan.
- Elkarrizketa: Asier, buzero ikastaroko begiraleari.
- Gure berbetan; Oporrei buruzko gogoeta.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eskoriatza

Udaletxea 943 714407
 Udal Bulegoak 943 714532
 Udaltzaingoa 943 714407
 Euskaltegia 943 792168
 Kultur-Etxea 943 714688
 Gizarte-Laguntzailea 943 714688
 Kiroletxea 943 715328
 Liburutegia 943 714688
 Luis Ezeiza 943 714938
 Jose Arana-Almen Ikastola 943 714486
 Almen 943 714964
 Museo-Eskola 943 714688
 Ze Barri? aldizkaria 943 714077
 Talde Antimilitarista 943 715028
 Irakasle Eskola 943 714157
 Osakidetza 943 714452
 Telesko 943 714917
 Taxia 943 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 943 795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 943 76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 943 797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 943 792800
 Renfe (Zumarraga) 943 721515
 Renfe (Gasteiz) 945 232030
 Pesa (Arrasate) 943 791419
 Larrialdiak (Arrasate) 943 771043
 SOS Deiak 112

ZE BARRI?

Argitaratzailea:
AXTROKI KULTUR ELKARTEA

Erredakzio kontseilua: Josu Azkarate,
 Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea
 Agiriano eta Lourdes Martinez.
Kolaboratzailea: Iñaki Agiriano, Aitor Urrutia.
Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.
 Tirada: 1.500 ale

“ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten
 aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin”

Asier Linazisoro

Buzeo ikastaroko monitorea

1. Zergatik duzu buzeatzea hain gustoko?

Buzeatzea beste mundu batean sartzea da, isila, baketsua, misterioitsua eta relajantea den mundu bat.

2. Noiz hasi zinen kirol hau praktikatzen? Eta noiztik zara begirale?.

Duela bost urte, monitorea gisa urte ta erdi dala.

3. Zein itsasotan buzeatu duzu?.

Peninsulan leku askotan, eta baita kanariar irletan, itsaso gorrian, maldivas irletan.

4. Zenbat inmersio daramatzazu?.

344 inguru.

5. Ur azpiko zein paraje da politena?

Itsaso gorria, batez ere Rass Mohamed zonaldea, hau erreserba integrala da eta oso zaindua dago. Korral zoragarriak daude bertan.

6. Ze arrisku ditu kirol honek?.

Printzipioz bat bera ere ez, kurtsiloan pausu batzuk erakusten ditugu, jendeak seguru buzeatu dezan. Adibidez, igoeran arnasa hartu eta botatzen joatea, gorantza oso poliki joatea, *parada de seguridad* delakoa egitea...



7. Non buzeatzea izango zen zure ametsa?.

Galapagos-en dauden Wolf eta Darwing irletan. Espezie oso bereziak daude bertan: itsas otsoa, "tiburon martillo". Kursilo honetan Mutriku inguko itsasondoetan ibiliko gara, ta hau ere paraje aparta da.

8. Tiburoi artean ibili al zara?.

Bai, asko gainera. Maldivas irletan esaterako, ia inmersio guztietan tiburoi artean ibili ginen. Baita Itsas gorrian ere, *Shark reef* zonaldean, bertan tiburoi grisa ikusi genuen metro t´erdia.

Zer iritzi duzu kaleko obrei buruz?, beharrezkoak al dira?.



Arantza Miguel

- Beharrezkoak dira, baina laster ez badira bukatzen "de los nervios" bukatuko dut.



Mª Pilar Benito.

- Adelantua onak dira, baina honek "Escorial"-eko obrak baino gehiago irauango duela ematen du eta ea noiz bukatzen diren!



Lorenzo

- Desastre bat da, denbora asko daramate. Konpainia honek espabilatu beharra dauka.

- Bai, udalak hala erabaki badu beharrezkoak izango dira.



Angela Fernandez

- Egin behar badira, ondo egin dezatela. Guk nahi genuena da, hemen Intxaurtxuetako plazan banku batzuk jartzea, ta uste dut merezi dugula.



Almudena Martin Garcia

- Obrak egitea ondo ikusten dut, baina aparkamentu gabe, bidea gaizki...guzti hau oso inkomodoa da!



Mari Berdejo

- Maja, hemen San Pedro txikietatik orain arte egon gara obretan, hau kriston paloa izan da! Euria egin ezker, kotxeak ta gu ere potzuetan sartuta, nire ustez larreiko izan da eh!



ESKORIATZAKO
 UDALA
 Euskara Batzordea

Aldizkari honek Udaletxearen laguntza jasotzen du

EIZMENDI

okindegia eta gozotegia

Eduardo Gorosarri plaza
 Tfnoa. 943 715417

**MIRENTXU
 TABERNA**

Tfnoa. : 943 714167

Kafe goxoa hartzeko

**TXALAPARTA
 JATETXEA**

Tfnoa.: 715046

Andramaixak Gatzagan

Baina, lanerako buelta ez da izan irailak gure bailarara ekarri duen albiste bakarra, ez horixe! Izan ere, gatzagarrak lanaren burukominak alde batera utzi, eta berriro ere, irailaren lehenengo asteburuan, urtero bezala, Andramaixak ospatzeko jaiak murgildu baitziren. Eta ez gatzagarrak bakarrik, Eskoriatza eta inguruko herrietatik ere, jende ugari hurbildu zen bertara! Azpimarratzekoa bereziki, larunbat gaueko giroa. Alaitz eta Maiderrek eskaintako dantzaldiak, jende ugari tentatu baitzuen Gatzagatik pasatzera. Aurreko gauean, berriz, ostiralean, Iskanbila arrasatearrak eta Betagarri gasteiztarrak izan ziren martxa bikaina jarri zutenak, Gatzagak kontzertu onak eskaintzeko duen fama berriro ere fama hutsa baino zerbait gehiago dela garbi utziaz.

Dorletako Ama, txirrindularien zaindariaren ohorez korritutako XX.

Dorletako Ama Sari Nagusian, berriz, Olarra-Ercoreca taldeko Peio Arreitunandia mutrikuarrak eskuratu zuen garaipena, tropeletik ihes egin, eta helmugan bi minutuko abantaila lortuz. Talde bereko Gorka Arrizabalaga izan zen bigarrena, eta Caja Ruraleko Asier Etxezarreta hirugarrena. Gatzagako portua bereziki ongi doakio Peio Arreitunandiari, ekainean, Arrasaten antolatutako San Juan Sarian, portu berean ihes eginda, bakarrik heldu baitzen helmugara. Denboraldi bikaina burutzen ari da aurten txirrindulari mutrikuarra.

Hilaren 8an, berriz, urteroko zitari beti bezain leial, otxandixorrek bisita egin zieten berriz gatzagarrei, urteetan zehar mantendu den usadioa berrituz. Goizeko 8etan Otxandixotik irten eta mendirik-mendi



Alaitz eta Maider beraien "fans"ekin. ibilaldia egin ondoren, hiru ordu beranduago Dorletako Santutegira heldu ziren bizkaitarrak, beren arbasoek gatza lortu ahal izateko egiten zuten ibilbidea gogoratuz. Eguraldi ona lagun, 150 lagun inguru izan ziren Gatzagaraino hurbildu ziren otxandixorrek, eta gatzagarrekin batera, giro ezin hobe batetan agurtu zituzten 1998ko Andramaixak. Datorren urterarte!

GUTUNA CHIAPAS- ETIK

San Pedro jaietako juerga eta ajeak guztiz ahaztutua ditugun arren, oso urruneko lurralde batetik, Mexikoko Chiapas estatutik heldutako gutun batek, gure parranda gogoak jai osteko ajea baino ondorio emankorragoak izan dituela ohartarazi gaitu. aurtengo jaietan, Deba Garaiko Chiapasekiko Elkartasun Taldeko kideek, txozna bat jarri zuten, lurralde hartako indijena jendea laguntzeko dirua bildu nahian. Eta baita bildu ere!. Hauxe duzue, itzulita, Chiapaseko San Cristobal de Las Casas hiriko A.C. Bitartekaritza Zibilak bidalitako gutuna. Eskerronezko gutuna dugu hau, baina era berean, laguntza eskakizun bat ere bada.

Bidalitako 250.000pezetekin, Aguascalientes-eko biztanleentzako 10 Tona. arto erosi ziren. Baina gutxi izan liteke, lurralde honek orain astebeteko dela jasan behar izan dituen uholdeei aurre egin ahal izateko.



Eskoriatzako kide maiteok:

Jaso dugu dagoeneko gudan hainbeste konfidantza erakutsiz bidalitako dirua: erresistentzian bizi diren Chiapaseko indijena komunitateentzat artoa erosteko erabili duguna. Gure arbasoen jaki izandako hazi horiak, bete ditu dagoeneko hauetako batzuen sabelak.

Zuen laguntza eskaintzen jarraitzea eskatzen dizuegu, gosea gogorra bait da aurten, eta jendeak zerbait jan ahal izateko arto pixka bat eskatzen bait dugu bakarrik. Gosea, historian eta gure lurraldean beren lekua eskatzera ausartu ziren indijenen aurka, gobernuak erabiltzen duen arma da.

Militar eta paramilitarrek ezarritako hssia gutxi ez balitz, aurten lehorte oso kabroi bat izan dugu. Gainera, 19.000 indijena desplazatuak laguntza humanitarioetik bizi daitezke bakarrik, beren etxe eta lursailak polizia, paramilitar eta soldaduen esku gelditu bait dira.

Eskerrik asko, lagunok. Denon artean mundu hobe bat erai ki ahal izango dugu.

Eskerrik asko Eskoriatzako herriari, bertan bizi duen egoera zaila bizi arren, gutaz gogoratu delako.

Enlace civil A.C.
Calle Ignacio Allende 4
29200 San Cristobal de las Casas
Chiapas-Mexiko
Tlf eta faxa: 52-967 82104

A & B
aholkulariak

**LEGEZKOA
FISKALA
KONTULARIA
LABORALA
LAGUN-ARO ASEGUURAK**

Gastañadui, 7
Tel.-Fax. 943 71 54 36

20540 **ESKORIATZA**
(Gipuzkoa)

ALDETEC




**TASAZIOAK
PERITAZIOAK
PROIEKTU ING.
OBRA ZUZENDARITZAK
ERREFORMAK**

Gastañadui, 7 - bajo
Tel.: 908 - 77 41 33 Tel.-Fax 71 54 36 **20540 ESKORIATZA**

Eskoriatzarrak munduan zehar

Ze Barri?n jaso ditugun postaletatik ondoko hauek iruditu zaizkigu originalenak, beraz, hauei eman dizkiegu merezitako saria. On egin deizuela eta hurrengo urterako bestioak ere animatu!

Dorleta eta Gorka Akixuk Holandatik bidali zizkiguten goraintziak postal honen bidez. Ikusi daitekeenez, ganau artean paseatu dute Amsterdameko kanaletan zehar, baina gustora ibili direla esan digute.



Paraje
ederrak
behi eta
ur artean

Ainitze, Pez eta Josuren oporrak.

Galizian egon gara eta herri txikiak ikusi ditugu: Porto do Son, Boiro, Baiona, Noja... Denak "Rias Baixas" en dauka. Baroñan "castro celta" ikusgarri bat ikusi genuen, oso ondo mantentzen dena. Islas Cies ere ikusgarriak dira. Santiagon, katedrala ikustera joan ginen eta arratsalde bat pasatzeko ondo dago. Baina dudarik gabe, oporretan gehien mariskoa jaten disfrutatu dugu, primerakoa zegoen!. Bukatzeko bi gauza: herri guztiak oso garbi zeudela eta atlantikoko ura oso hotza zegoela.



Pastel goxoak
gure bi
irabazleentzat.
Zoriontasun
aurpegiak nabari
zaizkie, ezta?.

BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

KRISTALDEGIA

Herriko plaza ☎ 943 79 81 78
ARETXABAETA

ANGEL ASEGUROAK

Autoak, Etxeak, Bizitza, Istripuak,...

Arana, 19 Behea. Tfnoa: 943- 715203. ESKORIATZA

ALDI
JANARI DENDA

Hidalga, 8
Tfnoa: 943 71 45 42

SALON DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 943 71 51 20

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

kutxa fundazioa
fundación

Bidalitako argazkiak

Olatz eta
Imanol Pirineoetan.



Castro Celta
de Baroña (Galizia)

Gari,
Larraitz,
Andoni eta
Philiphs
(Iñigo)
Marruekosen



Vietnam.
Mikel eta
Anak
utzitako
argazkia.

GURIE BERBETAN

BAKERAKO MOMENTUA, AURRERA EITTEKO MOMENTUA DA

"ZE BARRI? Urlatik Landetara"kuakin geratu naz, hilero, apartau barri hontan, zuei, gure Eskoitzako euskera aberats klase hontan eskriburuteko. Eta egiza esan, setienbreko ale hontan, bakazinuen gainien berba ein biher. Hortara ekingutsat orduen.

Esan geike, Eskoitzan, udia S. Joan suakin hasten dala, S. Pedroko jaixakin euren puntu altuenera ailegetan dala, eta gero, beherako bidia hartzen dauela, nahiz da Julixuen, itxura apur bat manteniruten dan udako ziniatz etab. az. Baina agostua ailegetan danien, hau lastimia emutekua izeten da. Eztau EZEBEZ. Denda mordo batek batera izten daue, zerbizino guztiak minimuetan geraketan dje, esate baterako, medikuena bera, ero Parrokixia, eskerrak ondio badazela herriko semen batzuk; Ayuntamentuak, konsiderazino askoik barik, orduentxe hasikoitu ero mantenirukoitu setienbretik aurrera, ero juliora arte, ein hal izengo litzakezen obrak. Eta ezin ddaiuen ero urtetia gureztauiuen herrittarrak, zer?. Danok gaz urtetera derrigortuta, ala?.

Baina, hori bai, "Verano azul", eta "Curro Jimenez"en 152. reposizinaua ikusi ondoren, Txankete hil, eta Julia bere koadro zatarrakin Madrilera bueltetan danien, neskatila-mutikuak Txanketen barkutik ezittuela mobiruko kantetan dauien bittartien, hortik aurrera, badakigu gauzia apurka-apurka bere onera etorriko dana, eta orduen etorriko dala abenturak kontetako, eta morenua erropa egokixakin luziruteko momentua; Atzen batién, ezer ezpadau kontetako, eta morenoik pe ezpadau luziruteko, uda galdua dalako. Eta ostera rutinara, esaminakin, umien eskola hasieriaz, pagau bihedan kredituaz, enfin, baktotxa bere burukantsazinuakin.

Aurten barrez, bateonbati, Eskoitzan, 8 milue be tokau ei jako kinielan, oin bi urte peskadeixa baten loterixia tokauzan letxe; Modu ederra bakazinuak akabetako!; Bolara onien gaz itxuria danez. Jarraitu daixela!

D. M. III. na.

P. D: Joño! Jabier Parrokua be toki ederrien egon da ba!, eta barrez eztusku postalik bihaldu. Ahhhhh! Ba eztau pastelik. Lastimia!.

BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.



Esko Sport

Kirola eta sport moda
Leintz bailaran.

Tel. 943 715296

TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**

EROSLE

HARATEGIA,
FRUTATEGIA eta
BESTELAKOAK

Aranburuzabala, 3
Tfnoa: 943 714546

Buzeo ikastaroarekin kiroldegiak puntuak irabazten

Eskoriatzako kiroldegiak "Buzeo Euskadi"-rekin batera antolatutako eta berez, "open water diver" izenez ezagutzen den lehen ikastaro honen iraupena bi astetako izango da. Partaideek, 30 metroko sakonerara heldu ahal izango dira, "buzeo errekreatibo" sailean sartzen baita ikastaro hau.

Ikastaroa 3 zatitan banatuko da: alde batetik 6 kapitulodun teoria zatia (12 ordutan beteko dena); eta bestetik 2 praktika mota, bata pistinan (8-10 ordu bitartekoa) eta bigarrena itsasoko uretan (8 bat ordutan burutuko dena).

Kiroldegiko bazkideek 45.000 pezeta ordaindu beharko dute materiale orokorragatik, gehi beste 5.000 pezeta neopreno zko trajea eta berunezko gerrikoa behar

izanez gero. Honez gain, norberak izan beharko ditu tutu, betaurreko eta aleta propioak.

Ikastaro honetan parte hartu duten lehen ausartak hilaren 17an hasi dira baina oraindik ez da berandu aurrerago antolatuko diren beste buzeo ikastaroetan izena emateko. Gainera, buzeo ikastaroan parte hartu duenak titulu bat eskuratu ahal du froga batzuk gaudituz gero.



Lehen buzeo ikastaroko talde guztia.

Amuskako ikastaroak

Ana Larrieta psikologoak badaramatza Eskoriatzan hilabete dextente ikastaroak ematen. Heldutasunarekin zerikusia duten gaiak jorratzen dituzte, batez ere autoestima eta trebetasun soziala. Ana Larrietaren esanetan, "ikasi eta esperientzia berriak ezagutzeko prest dagoen edozein emakume heldu ongi etorria izango da".

Irailak 24 an kultur etxean eginiko bileran izan ostean eta lehen aipatutako gaien gainean pixkat hitzegin ondoren, bi gauza gelditu zaizkit argi: lehena, emakume hauen arteko giro jatorra eta bigarrena, hasiera batean ikastaroan sartzen den emakumea ez dela irtetzen denaren berdina izango.

Beraz, nik neuk parte hartu ezin dudanez (emakume heldu bat ez naizelako), hemendik egin dezakedan bakarra zera da: "emakume heldu" sailean sartzen direnak animatu.

Utziko al dugu Arrano iztea?

Hamar urte egon gara Arrano tabernarekin gozatzen. Orain dela urte bat, Larraitz eta Garik hartu zuten urte baterako eta 14 hilabete daramatzate bertan. Larraitz ikastera doa eta Garik beste proiektu batzuk ditu. Arrano taberna itxita egongo da beraz aurrerantzean. Ea ba, norbait animatzen den bertan lanean sartzera.

Animatzen bazara deitu edo egon Edorta Zubizarretarekin.

EGINGO DUGU

Egin egunkaria berriz kaleratzeko behar diren 1000 milioetatik, Eskoriatzari 2.800.000 pztta jasotzea tokatzen ei zaio. Diru hau lortzeko **eginen** aldeko batzorde bat sortu da herrian, eta esan digutenez diru laguntzak emateko hiru bide daude:

- 1.- 1.000.000 pztako akzioa erostea.
- 2.- 100.000 pztako akzioa erostea.
- 3.- Borondatezko diru laguntza ematea

Aportazio guzti hauek **Euskadiko Kutzaren zenbaki honetan egin daitezke: 0440015219**

Honetaz aparte **eginen** aldeko batzordeak hainbat ekintza antolatuko du dirubilketan kolaboratzeko. Batzordean parte hartu nahi duenak urriaren 13an egingo da hurrengo bilera Kultur Etxea.

BAI EUSKARARI

Kontseiluak, Euskal Herrian euskara normalizatzeke lanean diharduten taldeen erakundeak Euskararen Plan Estrategikoa diseinatzeari ekin dio. Horretarako gizarte osoaren laguntza bilatuko du AKORDIO SOZIALAREN bidez.

Lanari hasiera emateko **urriaren 3an Zamudion aurkezpen zabala** izango da. Jarraian, Bai Euskarari deritzon kanpaina hasiko da, 20. urteurrena dela eta. Honen baitan, **Akordio Soziala bultzatzen hasiko da herriz herri** eta ekintza garrantzitsu bezela, abenduan **Lanordu bat euskararen alde** eta **San Mameseko jaialdia** ospatuko dira.

LENIZ
AUTO ESKOLA
 tel. 943 71 41 86
Gida baimen guztiak!

AZKOAGA
ESTANKOA
Zure zerbitzura

Cuenta Joven de Caja Laboral El servicio más completo.

Euskadiko Kutzaren Kontu Gaztea. Zerbitzuetan osatuena.

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Aingeru Ibiltokia, z/g.
 Tfnoa.: 943 715061

LENIZ
 ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

REPARACIONES LENIZ, C.B.

Iritzia

TELESKO NORA ZOAZ?

Gure herrira bixitari etortzen den askoren harridura pizten omen dute Eskoriatzako teilatuek. Tximini eta teila artean telebista antenarik ez ikustea arraroa omen da hemendik kanpo. Apotzaga aldeko mendiek Muruko errepetidoreko uhinak oztopatzen dituztela eta, gaur egun horren estimatua den kable bidezko telebista aspalditik ezagutzen dugu eskoriatzarrok. Eta geurea dugu baita, estatu espainiarrean sortu zen lehenengo herri telebista, gaur egun Euskal Herri osoko (herri) telebisten eredu den ATB sortu baina lehenago jaioa. Ez naiz orain konparaketak egitearen tranpan eroriko, argi daukadan gauza bat baita Arrasate eta Eskoriatza oso herri ezberdinak direla (bai tamaina eta baita izaeraz ere) baina aspaldidanik kezkatzen nauen kontua da Teleskoren ibilbidea. Gogo eta ilusioz beteta jaiotako proiektua, ez buru ez hanka ikusten baitut azken urteotan.

Edozein talde eta ekimen bultzatzeko izugarriko zailtasunak dituen herria da gurea, eta oso gutxi dira musutruk gauzak egiten ahalegintzen direnak. Eta Teleskoren proiektuan lan egin duen inoren haserrea pizterik ez nuke nahi idatzi dudan "artikulu" honekin, baina, sarritan pipertzen nauen egoera batean dago Telesko gaur egun. Nork ikusten du gure udal herri telebista Eskoriatzan? Ze gai dira bertan jorratzen direnak? Nork mugitzen ditu bertako hariak? Erantzun argirik ez duten galderak dira niretzat. Udal Hauteskundeak heltzen direnean Telesko beti da aipagai alderdi politikoen programatan; beti azaltzen da udal telebista sarea baserriaraino zabaldu, eta telebista bera hobetu eta indartzeko asmoa, baina, beti bezala, hitzak haizeak eramaten ditu, legealdiz legealdi. Ba omen dago Teleskoren jarduna eta edukinak zuzentzen dituen batzorde bat udal organigraman, baina, egia esan, ez dut uste gure herri telebistaz arduratzen den politikaririk dagoenik, eta balego, ez dut uste herri komunikabide munduari buruz askorik dakienik.

Saioetako egitura eta sarrerako imajinak urtetan berritu gabe daude, denbora, tratamendu eta irudi aldetik desproporzionatuta daude gaiak; hizkuntzari ematen zaion tratamendua negargarria da, eta Eskoriatzako herriaren eguneroko errealitate eta bizitzatik guztiz kanpo ikusten dut horren baliagarri izan litekeen tresna, zehetasun teknikoetan sartu gabe. Eta ez dut uste baliabide falta denik bertako arazoa, ekimen, erabaki, eta batez ere, borondate falta baizik.

Teleskok martxan daramatzen urte guztietan, inoiz ez didate ikusten dudak, gustatzen zaidan edo eta bertan zer aldatuko nukeen galdetu. Eta egia esan, ez dakit inork nik esandakoari jaramonik egingo liokeenik. Baina geure udal herri telebistak eskaintzen digunarekin gustora dauden eskoriatzarrak oso gutxi direnaren susmoa daukat. Ez da hala?

Garikoitz Kortazar

JAIOTZAK ETA EZKONTZAK

JAIOTZAK

- Maria Jara Perea (98-07-30)
- Janire Villamor Melgar (98-08-20)
- Naiara Zurutza Uribetxebarria (98-08-20)

EZKONTZAK

- Luis Alberto Muñoz Pérez eta M^o Dolores Pacheco Sancho (98-08-01)
- Juan Alberto Herrero Gil eta Blanca Medina Fernandez (98-07-31)
- Tomás Pachuelo Calderón eta Eugenia Sajeras Santander (98-09-05)
- Isidro Sanchez Nieto eta Estrella Tebar Apraiz (98-09-12)
- Juan Antonio García Martín eta Miren Izaskun Diaz de Gereñu Esquibel. (98-09-12)

AGENDA

DIRULAGUNTZAK

* 1999an Alemaniako unibertsitateetan udako ikastaroak egiteko dirulaguntzak, ikasle eta katedradunentzat. Epea: abenduak 4.

* Alemaniako Goethe Institutuan aleman ikastaroak egiteko aukera, ikasketen azken edo azkenaurreko kurtsoa egiten ari diren ikasleentzat, edo unibertsitateetan lanean d8iharduten tituludunentzat. Epea: abenduak 11.

LANA

* Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzan, ordezkapenak egiteko zerrenda irekialdia. Irakaskuntza ertainean, frantsesa, informatika, automozioiko praktikak, teknologia elektrikoa ... , eta ingelera, pedagogia terapeutikoa, musika, entzumena eta mintzamenaren espezialitateetan maisu-maistrak. Zerrenden irekiera, irailaren 21etik aurrera.

* Etxarri Aranatzeko Udalak, liburutegiko arduraduna behar du. Epea: urriak 7.

* Burlatarako ludotekari bat eta famili langile bat behar dira. Epea: urriak 11.

* Lesakako Andra Mari Egoitzarako zuzendaria behar da. Epea: urriak 14.

* Berako Udalak, administrari laguntzaile bat behar du. Epea: urriak 19.

* Bizkaiako Diputazioak, subiltzaile gidariak behar ditu. Epea: EAOn argitaratu zain.

LEHIAKETAK

* Gernika-Lumoko argazki lehiaketa, gai librean edo Urdaibairi buruzko argazkiak, txuri beltzean edo koloretan. Epea: urriak 8.

* Donostia Hiria literatur sariak, ipuina eta antzerkia modalitateetan, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Epea: urriak 31.

* Komiki ez sexisten Donostiako lehiaketa, euskaraz zein gazteleraz. Epea: azaroak 4.

Kilometroak 98:
Tolosan urriaren 4ean
Nafarroa Oinez 98:
Sangotzan urriaren 11ean

Mendi irteera Picos de europa
Urriaren 10-11-12. Informazioa jaso edo izena emateko Namaste dendan.
Gaztetxoaren irteera Urbiara
Urriaren 18an



Industrias Olabarri, S.A.
 Arana, 20 • 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)
 Tfnoa.: 943 715267 - 714272 • Faxa: 34-43 - 714061

ALDATZ Taberna
 Tfnoa.: 943 714171
 Musik ona entzun dezazun



Luis Eceiza eskolako atletismo eta volleyball taldeari dagokio 1973-1974. urteen artean ateratako argazki ofizial eta itxuroso hau. Besterik ez bada ere, aurpegi ezagun asko ikusteko aukera baduzue, beraz, hartu zeun denbora, kafea esku batean, aldizkaria bestean eta zehatz mehatz azter ezazue argazkia.

Ezkerretik eskumara **zutirik**: Don Jose jauna, Rosario Iglesias, "Amerikano", Aguiriano, Antonio López, Zubizarreta, Juan Rus, Pepe Pavón, bere aurrean Juanjo Díaz de Güereñu, Arroyabe, M^a Jesús Arroyabe, Arrieta, Segovia, Lanjarín, Maite Uribe, Zabala eta jaun Don Bernardo. **Makurturik** ostera: Dolores Pavo, Alcázar Marta, Belén Azcargorta, M^a Carmen Iglesias, jaun Don Andrés, Ana José, Fabiola Rubio, Ima Lapuente, Dorleta Iriarte eta Deo Montoya.

Argazkia eta informazioa: Deo Montoya

Oraingoan bai!

IRAILA EUSKARAZ DATOR!

ESKAINNTZA

EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE maila guztiak, EGA eta GURASO eta MERKATARLEI egokitutako taldeak.

ERRITMOAK

Eskarien arabera, eritmo desberdinak eskain daitezke. Galde ezazu!
Bekatzte-sistema eta diru laguntzak ditugu.

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 09:00-13:00.
Arratsaldez: 15:00-19:00.

MATRIKULATZEKO EPEA

Irailaren 1etik 18ra arte.
16 urtetik gorakoentzat.



LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

ARETXABALETA: Nafarroa etorbidea, 24 • Tel.: 943 79 21 68
ESKORIATZA: Fernando Enparantza • Tel.: 943 79 21 68